

IKASTETXEETAKO LANGILEEN TELELANARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Joan den martxoaren 12tik, zenbait ikastetxetan, eta martxoaren 13tik aurrera, ikastetxe guztietan, irakasleak, hezitzaileak... beren lana etxetik egiten ari dira baliabide telematikoak erabiliz. STEILASEk uste du beharrezkoa dela zenbait argibide ematea egoera horretan ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza mantentzeko eta langile guztien lan-baldintzak errespetatzeko.

1. Ikastetxeek baliabideak bermatu behar dituzte ikasle guztiek modu telematikoan eta baldintza berdinetan jarraitu ahal izan ditzaten eskolak.
2. Hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea bermatzeko STEILASEk ikastetxe pribatuetako titularrei baja, baimen edo eszedentzian dauden langileak ordezkatzeko eskatzen die. Horrelako egoera batean dagoen edo sartzen den langilea, ordezkatzeko eskatu behar du, sektore bakoitzean indarrean dauden lan-akordioei jarraituz, eta, jakina, ez du telelanean jarraitu behar.
3. Langileek ikastetxearen, ikasleen eta familien eskura egon behar dute, beren ohiko ordutegian bakarrik. Langileei beren lan ordutegitik kanpo ez komunikatzea gomendatzen diegu.
4. Telelanak oporradiak, jaiegunak eta asteburuak errespetatu behar ditu. Langileei gomendatzen diegu aldi horietan ere ez komunikatzea.
5. Inplikaturako pertsonen duintasuna eta intimitatea errespetatuz egin behar dira komunikazio telematikoak. Hori horrela izan dadin behar diren baliabideak jarri behar dituzte ikastetxeek langileen eskura. Hala ere, edozein pertsonak komunikazio horiek erabiliko balitu eskubide horiek urratzeko, posible da hori agintaritzaren aurrean salatzea.
6. Telelaneko aldi horretan, titularrek langileen lan-baldintza guztiak errespetatu behar dituzte; izan ere, langileen ordainsaria osorik jasotzeko eskubidea dute, kobratzen ari ziren osagarriak barne.

ALGUNAS INDICACIONES SOBRE EL TELETRABAJO DEL PERSONAL DE LOS CENTROS

Desde el pasado 12 de marzo en algunos centros y desde el 13 de marzo en todos los centros el personal de los centros está realizando su trabajo desde casa usando medios telemáticos. STEILAS cree necesario dar algunas indicaciones para que en esta situación se mantenga una educación de calidad para todo el alumnado y se respeten las condiciones laborales de todo el personal afectado.

1. Los centros educativos deben garantizar los medios para que todo su alumnado pueda seguir las clases de forma telemática en igualdad de condiciones.
2. Para garantizar la calidad del servicio educativo STEILAS exige a los titulares de los centros privados que sustituyan al personal docente que se encuentre o acceda a una situación de baja, permiso o excedencia. Quien acceda a alguna de esas situaciones debe solicitar que se le sustituya siguiendo los acuerdos laborales vigentes en cada sector, y por supuesto no debe seguir teletrabajando.
3. El personal debe estar a disposición del centro, del alumnado y de las familias sólo en su horario habitual. Recomendamos al personal que no se comunique fuera de su horario.
4. El teletrabajo debe respetar los días festivos, fines de semana y periodos de vacaciones. Recomendamos al personal que tampoco se comunique en esos periodos.
5. Las comunicaciones telemáticas deben realizarse respetando la dignidad y la intimidad de las personas implicadas. Los centros deben poner a disposición del personal los medios necesarios para que esto sea así. Si aún así, cualquier persona usara estas comunicaciones para vulnerar esos derechos es posible denunciarlo ante la autoridad.
6. Durante este periodo de teletrabajo las entidades titulares deben respetar las condiciones laborales del personal, que tiene derecho a su remuneración íntegra incluidos los complementos que venía cobrando.

www.steilas.eu